



AGOITZ HIRIA NARRAZIO LABURREN XIV. LEHIAKETA

Lehiaketa honen xedea da literatura sormen jarduerak bultzatzea herriko gazteen artean.

OINARRIAK

1. PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan parte hartu ahalko dute Agoizko San Miguel Ikastetxe Publikoan Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuan dauden ikasleek edo beste lekuren batean ikasten ari diren Agoizkoek.

2. GAIAK

Lanen gaiari dagokionez, bi aukera dago, **gai libreko idazlana egitea edo**, nahi izanez gero, **udaleko politika soziokulturalerako garrantzizkoak diren ardatz hauen ingurukoak:**

- Agoizko kultura eta natura ondarea.
- Genero berdintasuna
- Gazteen sexu-heziketa arduratsua (Gozamenez programa).
- Gizarteratzeko politikak: emigrazioa, gutxiengo etnikoak, krisi ekonomikoaren paratzaileak...
- Teknologia berrien erabilera arduratsua

Idazlanak **gaztelaniaz nahiz euskaraz** aurkeztu ahalko dira. **Parte-hartzaile bakoitzak lan bana** aurkeztu ahalko du hizkuntza bakoitzean, alegia gaztelaniaz eta euskaraz bana. Idazlanak originalak izango dira, argitaratu gabeak eta beste lehiaketaren batean saririk jaso ez dutenak.

3. MODALITATEAK. Bi modalitate ezarri dira:

1. Lehen Hezkuntzako eta DBH-ko 1. eta 2. mailako ikasleak.

Lehen hezkuntzako ikasleentzat, lanaren luzera gehienez ere 3 orrialdekoa izanen da. DIN A4 tamainako orrietan aurkeztuko dira, ordenagailuan idatzita (bakarrik orrialde batean), lerro arteko espazio bikoitzean, 14 tamainako Times New Roman letrarekin, eta orriak zenbaturik egonen dira. Salbuespen

gisa, ordenagailua erabiltzen ez dakiten Lehen Hezkuntzako ikasleek eskuz eta luzera berarekin aurkeztu ahal izango dituzte beren lanak.

DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen kasuan, lanen luzera gutxienez 2 orri eta gehienez 8 orrikoa izanen da. Ordenagailura pasatuta egon beharko dute, DIN A4 neurriko orrietan, 1,5 lerroarteko neurrian eta 12 puntuko Arial letraz idatzita, alde bakarretik, eta orri guztiek zenbakituta egon beharko dute.

2. DBH-ko 3. eta 4. mailako ikasleak.

DBH-ko 3. eta 4. mailako ikasleentzat **mikro-ipuinen** modalitatea ezarri da. Lanek, gehienez 20 lerrokoak izanen dira, eta gainerako testuetarako adierazitako ezaugarriekin: orriek DIN A4 neurrikoak izan beharko dute, ordenagailura pasatuta egon beharko dute, 1,5 lerroarteko letraz eta 12 puntuko Arial letraz idatzita.

4. LANEN AURKEZPENA:

- 1. San Migel LHI-ko eta Agoizko DBHI-ko ikasleen kasuan,** ikastxeak onetsitako "Ipuinak aurkezterakoan bete behar den protokoloa" izenekoan adierazitakoari jarraikiz aurkeztuko dira.
- 2. Agoizko ikastetxean ikasten ez duten herriko ikasleen kasuan,** idazlanak honako modu honetan aurkeztuko dira: gutunazal itxi batean idazlanaren 3 kopia sartuko dira. Kopia bakoitza izengoiti batekin sinatuko da eta, horretaz gain, lehiaketakidearen adina eta maila adieraziko da. Orri guztietan izengoitia agertuko da. Gutunazalaren kanpoaldean honako datuak agertuko dira: lanaren titulua, izengoitia, idazlearen adina eta maila eta hizkuntza (euskara edo gaztelania). Gutunazal horren barruan beste gutunazal bat sartuko da. Horren kanpoaldean izengoitia agertuko da, eta barruan egilearen datu pertsonalak: izena, abizena, adina, maila, helbidea eta telefonoa.

5. AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea zabalik egongo da **2020ko apirilaren 7a** arte. San Migel Ikastetxe Publiko eta Agoizko DBH-ko Institutuko administrazio bulegoetan aurkeztuko dira.

6. JABETZA INTELEKTUALA

Idazlanak egilearenak dira. Hala ere, Udalak beretzat gordetzen du lehengo argitalpena egiteko eskubidea; eta, argitalpen hori egiten bada, egilearen izena

agertu beharko du. Saririk ez duten idazlanak jasotzeko 30 eguneko epea dago (epaimahaiak erabakia jakinarazten duenetik hasita). Jasotzen ez diren lanak Udalaren esku geldituko dira.

7. SARIAK

Lehiaketaren sariak (liburu sortak eta eskola materiala), honakoak dira:

1. Euskara:
 - a. Lehen Hezkuntza: 1. eta 2. saria, hezkuntza bloke bakoitzerako.
 - b. DBH: 1. eta 2. saria, hezkuntza bloke bakoitzerako
2. Gaztelera:
 - a. Lehen Hezkuntza: 1. eta 2. saria, hezkuntza bloke bakoitzerako.
 - b. DBH: 1. eta 2. saria, hezkuntza bloke bakoitzerako.

Antolatzaileek epaimahaiaren erabakia eta sari banaketaren eguna jakinaraziko diete San Migel Ikastetxe Publiko eta Agoizko DBH-ko Institutuko irabazleei, eta jende orori ohiko bideak erabiliz.

8. EPAIMAHAIA

Honako hauek izanen dira epaimahaia osatuko duten kideak: **kultur-koordinatzailea**, euskara-teknikaria, San Migel Ikastetxe Publiko eta Agoizko DBH-ko Institutuko irakasleak, Agoizko kultur entitateen ordezkariak eta literaturaren arloan nabarmentzen diren herriko pertsonak. Horiek guztiek lehen irakurketa egin eta lan hoberenak aukeratuko dituzte. Literaturaren munduko pertsona batek emanen du azken erabakia.

Horiek lehen aukeraketa egingen dute, eta udalak izendatutako perstona batek eta literatura munduko beste batek hartuko dute azken erabakia.

Epaimahaiak hutsik deklaritzen ahal edozein sari, bidezko ikuste badu. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

9. OINARRIEN ONARPENA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar. Antolatzaileek lehiaketa ongi funtzionatzeko beharrezko aldaketa guztiak egiteko eskubidea gordetzen dute.

Agoizko Udala, Kultur Arloa eta Euskara Arloa.